

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gure proiektua garatzen hasi baino lehen, gure ideia nondik atera genuen eta zergatik baliagarria iruditzen zaigun azalduko dizuegu.

Egunerokoan, askotan gure ikaskideei eskatzen dizkiegu apunteak, azalpenak emateko edo batzuetan ere, gu baino helduagoak direnei liburuak edo bestelako apunteak eskatzen dizkiegu gure lana era errazago batean egiten lagundu ahal badigute.

Liburuak, urtero erosi beharreko gauza garestia da. Azkenean liburu berriak erosteko, inbertsio nahiko handia egin behar dutelako gure gurasoek, urte bat erabiltzeko eta gehinetan kajo batean gordeta geratzeko.

Horregatik, liburu horiek berrerabili ahal izateko era bat bururatu zitzaigun. Non ideia horrekin gainera inbertitutako diruaren zati bat bueltatuko zaizu eta gainera norbaiti egoera egokietan dagoen liburua prezio merkeagoan salduko diozun.

Gure inbenzioa, aplikazio baten bitartez erabili ahal izango da. Aplikazioa, teknologiko klaseetan ikasitako programarekin egingo dugu, app inventor izena duena. Horren bitartez erabilera sinpleko aplikazioa sortuko dugu, guraso guztiak era erraza batean erabili dezaten eta ikasle gazteentzat ere erraza izan dezan azalpenak entzuteko.



Bi zati edo izango ditu, bat “premium” moduan izendatu dugu, hilabetero prezio txiki bat ordaindu beharko delako, ikasleak aplikazioan inskribatuta dauden irakasleak “kontratatu” edo haiei galderak erantzun eta momentuan erantzun dezaten.

Beste zatia berriz, eskolarena izango da eta ikasle eta gurasoen eskuetan egongo da, dohain, non liburuak eta apunteak saldu ahal dituzten, gure eskuetatik pasa direnak lehenik eta behin eta saltzeko egokiak direla erabaki ondoren.

